

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua hainbat taldetan segmentatu dugu, horretarako faktore desberdinak kontuan hartu ditugu: adina, kokapena, gustuak... Baina konkretuki gure merkatua bezero mota bati zuzenduta dago, zeliakoentzat. Izan ere, ikusi dugulako ez daudela haientzako okindegi asko.

Alde batetik, gure merkatua 15 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat zuzenduta dago haiz zuzen ere, gazteentzat. Giro gaztea emango diogu gure okindegiari pertsona gazteak erakartzeko, baina publiko guztiarentzat irekita dago.

Gure helburuetako bat zeliakoek haien familiekin eta lagunekin etorri ahal izatea da. Modu horretan denek leku berdinean kontsumitu ahal izanago dute. Azkenean nahi dugu denok aukera izatea leku berean gozateko eta jateko.



Euskadin 22.000 pertsonak zeliakismoa dute. Horietako 6.000 pertsonak zeliakismoa dute eta beste 16.000 pertsonak zeliakismoa dute baina ez daude diagnostikatuak.

Gure segmentua jakiteko Inkestak egin ditugu. Horren bidez ikusi dugu zenbat pertsonak kontsumitzen dituzten glutenik gabeko jakiak. Hori eginez konturatu gara gehiengoak 15 eta 30 urte bitartekoak direla.

Gure segmentazio mota kontzetratua izango da. Honek esan nahi du, enpresek merkatu segmentu bat aukeratzen dutela, segmentu horrek eskatuko dituen produktuak eginez. Horretarako ahalegin guztiak bezeroen beharrei asetzerat bideratzen ditugu. Kasu honetan gure okindegia, glutenik gabeko produktuak baino ez ditu izango.

